

PROZESUAREN LABURPENA

Eskabidea nola bete

On-line bidez: [Lan-eskaintzen atarian](http://gestion-enplegu.ehu.es) (<http://gestion-enplegu.ehu.es>) behin beteta, ziurtagiria deskargatu daiteke. Ez da paperaz bidali behar. Bai, ordean merezimenduak ziurtatzen dituen dokumentazioa. Hau web orrian eskuragarri dagoen merezimenduen aurkezpen ereduarekin batera. Une honetan ez dago tasarik ordaindu behar.

Eskuz. Web orrian (<http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>) eskuragarri dagoen eskabidea betetzen eta inprimatzen, gero Erregistro bidez, eskaerarekin batera merezimenduak eta euskara ezagutzaren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

Tituluen fotokopiak (daukazu guztiak) edo hauen jaso ahal izateko tasa ordainketaren ziurtagiria.

Hizkuntzen eta euskarazko hizkuntza eskakizunen ziurtagiriak .

Onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda argitaratu eta gero, hautaketa prozesua jarraian azaldutakorekin bat egingo da:

Lehenengo fasea

Epaimahaiak euskara eta merezimenduen kalifikazioa egingo du.

Behin-behineko emaitzak argitaratuko dira.

Erreklamazioak aurkezteko epea bost egunekoa izango da.

Behin-betiko emaitzak eta azterketa egiteko hautagaiak zehaztuko dira, deialdi bakoitzari dagokion oinarrietan zehaztutakoaren arabera.

Bigarren fasea

Hautatutako pertsonen eskabide berria eta tasaren ordainketa egin behar izango dute horretarako UPV/EHUren web orrian emango den epean.

Eskabidea eta ordainketa zuzen aurkeztu dituzten pertsonen zerrenda argitaratuko da. *

Epaimahaiak, deialdiaren web orrian argitaratutako oharraren bidez, azterketa egiteko deia egingo du.

Azterketa gaitutako duten pertsonen zerrenda eta lortutako osoko puntuazioa argitaratuko da.

Erreklamazioak aurkezteko epea bost egunekoa izango da.

Lan-poltsetan sartzen diren pertsonen zerrenda eta bere ordena argitaratuko da.

- * **2018ko urtarrilaren 23ko epaimahaiaren Akordioari jarraituz, tasa ordaintzeko epea azterketren eguna arte irekita egongo da eta azterketa egitera sartu ahak izateko ordainketaren egiaztagiria aurkeztu behar izango da.**